

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LABRAZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hilerriaren ordenantza behin betiko onestea

Labrazako hilerriko ordenantzaren aldaketa behin-behinean onesteko espedientea jendarean jartzeko epea igaro ondoren, eta ordenantzari alegaziorik aurkeztu ez zaionez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, eta argitaratu egin da, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren 2021eko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Administrazio bidea amaitzen duen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoarekin. Horrek ez du eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztea.

Labraza, 2025eko azaroaren 21a

Errejidore-lehendakaria

M^a BEGOÑA MARTÍNEZ DE OLCOZ ESQUIDE

HILERRIAREN ORDENANTZA

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Hilerriaren jabetza

Kontzejua da Labrazako hilerriaren jabe bakarra, eta berari dagokio hilerriaren zuzendaritza, administrazioa, arautzea eta onik zaintzea, jabari eta zerbitzu publikoko ondasuna baita; hori guztia, ordenantza honetan adierazitakoari jarraituz, beste agintari edo erakunde batzuen berezko eskumenak direnetan izan ezik.

2. artikulua. Labrazako Kontzejuaren eskubideak eta betebeharrak

Labrazako Kontzejuari honako hauek dagozkio:

1. Hilerriaren antolaketa, kontserbazioa eta egokitzapena.
2. Liburu foliatu eta zigilatu baten erregistroa eramatea, non administrazio batzarrak egiten diren ateratze, lekualdatze eta errauts gordetzeak jasoko dituen, eguna, zenduaren izena edo gorpuzkinen titularra eta kolunbarioa zehaztuz.
3. Hilerriaren barne araubidea.
4. Hilerrian edozein motatako obrak edo instalazioak egitea, bai eta haiek zuzentzea eta ikuskatzea ere, udal baimena eskatu behar den edo ez alde batera utzita.

5. Hilobien emakidak esleitzea eta edozein motatako hileta eskubideak aitortzea. Larrialdi egoeretan eta administrazio batzarra aldeztu aurretik bilduta, baimena ematea erraztasunak edo gorpuzkinak ateratzeko, lekuz aldatzeko edo gordetzeko, ordenantza honetan jasota ez dauden egoeretan.

6. Ordenantza honetan ezartzen diren eskubide eta tasak jasotzea.

7. Hilerraren jabea eta erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartu behar dituen bestelako zereginak.

3. artikulua. Herritarren eskubideak eta betebeharrak

Herritarrei honako hauek dagozkie:

1. Hilerrian ehorzketa duina egiteko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo beste edozein arrazoren baten ondoriozko bereizkeriarik egin gabe.

2. Emakidaren esleipendunak diren bitartean lurzatiak eta kolunbarioak egoera egokian mantentzea, zaintza, estetika eta apaindura publikoaren aldetik.

3. Bai Labrazako Kontzejuak bere eskumenez baliatuz ematen dituen xedapen guztiak, bai beste administrazio edo erakunde eskudunen batek hilotzen osasun betebeharrak buruz ematen dituztenak, errespetatu eta betetzea.

II. titulua. Kudeaketa, administrazioa eta onik zaintzea

4. artikulua. Kudeaketa, administrazioa eta onik zaintzea

Administrazio batzarraren eta fede emailearen zeregina da hilerria kudeatzea, administratzea eta onik zaintzea.

5. artikulua. Hilerraren instalazioak

Hilerrak honako instalazio hauek dauzka:

1. Kontzejuaren jabetzako lurzatiak.

2. Erraztasunak edo hezur hondakinak gordetzeko kolunbarioak.

3. Zona komunak.

6. artikulua. Hilerria kudeatzearen helburuak

Hilerraren kudeaketan helburu hauek sartzen dira:

1. Hilerria kudeatzea.

2. Araudia bete dadin eskatzea.

3. Ordena, garbiketa, txukuntasuna zaintzea.

4. Kontzejuak hilerraren zaintza orokorra egingo du; hala ere, ez du bere gain hartuko instalazioetan, horma hilobietan, kolunbarioetan eta hilerrian jar daitezkeen gauzetan hirugarren batzuek egin ditzaketen lapurreta eta hondaketen gaineko erantzukizuna.

5. Gorpu edota gorpuzkien ehorzketak eta hilobietatik ateratzeak ikuskatzea; baita hilotzen osasun arloan indarrean dagoen legeriak behartutako beste edozein jardura ere.

6. Hilerraren elementu, eraikin eta instalazio komunak zaindu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.

7. Labrazako Kontzejuak ez ditu bere gain hartuko elementu naturalek eragindako kalteak (ura, haize bortitza...).

7. artikulua. Kolunbarioen eta hezurtegien xedea

Hala hilobiak nola kolunbarioak giza gorpuak, gorpuzkiak eta errautzak zuzenean ehorzteko izango dira bakarrik.

8. artikulua. Hilerrian ordena zaintzea eta hilerria jagotea

Labrazako Kontzejuak hilerriaren esparruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako funtzioek eskatzen duten begirunea exijituko du.

9. artikulua. Ehorzlekuak garbitzea eta haien mantentze lanak egitea

1. Ehorzlekuak garbitzeko, mantentzeko eta apaintzeko lanak partikularrei dagozkie, eta haiek arduratuko dira guene horiek konpondu eta onik zaintzeaz, tokiak eskatzen duen begirunearekin.

2. Lan horiek instalazioak errespetatuz egingo dira; jardunak amaitutakoan, bai ehorzlekua, bai ingurua aurretik zeuden moduan utzi beharko dira, eta sortutako hondakinak, materialak eta erabilitako lanabesak kendu egin beharko dira.

3. Partikularren batek bere ehorzlekua behar bezala zaintzen ez badu eta hondatuta baldin badago, eragindako eskubidearen titularrari egoera hori zuzentzeko eskatuko dio kontzejuak, eta, lanak ematen zaion epean egiten ez baditu, kontzejuak egin ahal izango ditu era subsidarioan, partikularren kontura.

10. artikulua. Hilerria garbitzea eta mantentze lanak egitea

Labrazako Kontzejuari dagokio hilerrian beharrezkoak diren lan materialak egitea, hala nola, mantentze eta garbitze lanak, eta hura arduratuko da lanok antolatu eta ikuskatzeaz.

11. artikulua. Hilobi plakak eta ikurrak

Kontzejuak aztertu egingo ditu hilobietan jartzen diren apaingarri, plaka eta sinboloak.

12. artikulua. Eginkizun administratiboak eta teknikoak

Labrazako Kontzejuak, dagozkion helburuak betetzeko, administrazio eginkizun eta eginkizun teknikoak gauzatzeko ahalmena izango du eta bereziki jarraian zehazten diren hauek oso-osorik betetzeko:

1. Edozein motatako ehorzketa eskubideen lagapen, aitorten eta aldaketari buruzko espedienteak bideratu eta ebaztea, bai eta horien onuradunak izendatzea, eta eskubide horiei dagozkien tituluen izapideak egin eta tituluak ematea ere.

2. Gorpuak eta gorpuzkiak ehortzi, hilobietatik atera, tokiz aldatu, erraustu eta deuseztatze baimena ematea. Labrazako Kontzejuaren baimen horrek ez du kentzen zeregin horietarako beharrezkoa den osasun arloko baimena eskuratu beharra, hala dagokionean.

3. Labrazako hilerriaren kudeaketari dagozkion helburuekin bat datorren beste edozein eginkizun, adostu eta gero.

III. titulua. Herritarrei lagatako kolunbarioak**13. artikulua. Kolunbarioak**

1. Kolunbario deritzo gorpu bat edo gorpuzkinak erraustetik sortutako errautsak zituen kutxa gordetzeko lekuari.

2. Familia unitate bakoitzak kolunbario bat izateko eskubidea du, baldin eta eskatzailea herrian erroldatuta badago, bertan jaio bada edo bertan bizi izan bada edo herriarekin nolabaiteko lotura badu, eta baldin eta aurrez eskaera egin eta Labrazako Kontzejuak aldeko ebazpena eman badu.

3. Kolunbarioak ordenan esleituko dira eta zenbaki bana jarriko zaie goitik behera eta ezkerretik eskuinera.

4. Labrazako hilerrian gorpuzkiak gordeta dituen hildakoaren familia unitate bereko lehen mailako senitartekoek (gurasoak, seme-alabak, ezkontidea, hildakoaren izatezko bikotekidea) errauts urnak utzi ahal izango dituzte nitxo edo kolunbario berean, aldezturik administrazio batzarrari eskaera eginda eta kendu egin beharko dira denbora gehien daramaten hondakinek kendu behar diren unean.

5. Hilobiak zein kolunbarioak txandakakoak izango dira, eta altxatu gabe denbora gehien daraman hilobi edo kolunbarioan egingo dira.

6. Debekatuta dago herritarrei laga zaizkien kolunbarioak saltzea edo eskualdatzea, salbu eta eskualdatzea heriotzaren ondorioz izan eta oinordekoei egiten bazaie. Hori gertatuz gero, Labrazako Kontzejuari jakinarazi behar zaio ezinbestean.

7. Edonola ere, herritarrei lagatako kolunbarioak mantendu eta zaintzeko ardura haiena izango da, baita gorpuzkiak hilobietatik ateratzekoa ere, lagapenak irauten duen bitartean.

14. artikulua. Inskripzioak eta oroitzapenezko plakak

Kolunbarioetan jartzen diren oroitzapenezko plakek eta inskripzioek izan behar dituzte lehenago hildakoen oroitzapenezko plaketan jarritako dauden antzeko letra, neurria eta koloreak.

IV. titulua. Kontzejuaren jabetzako lurzatiak

15. artikulua. Lurzatiak

1. Labrazako Kontzejuaren jabetza diren lurzatiak aldi baterako lagapenak izango dira, lege finkatutako epera arte, hilerrian ehorzketa eskubidea duten guztientzat. Kontzejuak erabakitzen duen arte luzatu ahal izango da epe hori, hilerrian leku aldetik dauden premiak kontuan hartuta. Senideak arduratuko dira gorpuzkiak hilobietatik ateratzeaz edo, azken buruan, Labrazako Kontzejuak.

2. Lagapena eten egin daiteke, aparteko egoeraren bat dela-eta nahikoa leku ez badago.

3. Kontzejuarenak diren partzelak mantendu eta zaintzeko ardura haiek erabiltzen dituzten herritarrena izango da, emakidak irauten duen bitartean.

4. Kontzejuarenak diren partzeletan egoteko denbora ehorzketa egunetik hasiko da kontatzen.

5. Legeak finkatzen duen epea igarotakoan, Labrazako Kontzejuak, gai organikoa suntsitzeko fenomenoak amaitu eta gero, gorpuzkiak hilobitik atera ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badu, eta oinordekoei horren berri eman beharko die gutxienez ere hiru hilabete lehenago, haiek non dauden erraz jakiteko modurik izanez gero. Oinordekoek nora eraman adierazi ezean, gorpuzkiak gune komunean utziko dira, berreskuratzeko markarik edo identifikaziorik gabe.

V. titulua. Ehorzketa eskubideak

16. artikulua. Hileta eskubideak

1. Labrazako Kontzejuak aitortu eta emango ditu ehorzketa eskubideak, ordenantza honetan eta toki araubideko araudian xedatutakoaren arabera.

2. Ehorzketa eskubideak lurzatiak eta kolunbarioak erabili ahal izatea dakar, ez besterik. Horien jabea Labrazako Kontzejuak da, ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

17. artikulua. Hileta eskubideen onuradunak

Labrazako Kontzejuak ehorzketa eskubideak aitortu eta emango dizkie hiltzeko unean honako talde hauetakoren batean dauden pertsonen:

1. Herriko biztanle guztiei, gutxienez ere urtebete lehenagotik bertan erroldatuta badaude.
2. Aurreko ataleko pertsonen lehen mailako odolkidetasuneko edo kidetasuneko senideei, izatezko bikoteei eta antzeko harreman afektiboetako kideei.
3. Herriko biztanle izan eta bertan bizi izan direnei, nahiz eta bizilekua aldatu osasun, familia edo gizarte arrazoiak direla eta, baldin eta kontzeju irekiko batzarrak onesten badu.
4. Aurreko puntuetan sartuta egon ez arren, batzarrak kontzeju irekian aztertu eta onartzen dituenak.

18. artikulua. Aseguru konpainiak

Aurreikuspen aseguru etxeak edo antzekoak ezin izango dira izan ehorzketa eskubideen titularrak. Beraz, Labrazako Kontzejuaren aurrean ez dute ondoriorik izango ituntzen dituzten polizen edo kontratuen klausulek, baldin eta asegurudunei ehorzketa eskubidea ordaintzeko beharrezko kapitala emateko eskubideaz gainera beste eskubideren bat estali nahi badute.

19. artikulua. Kolunbarioak eta hilobiak identifikatzea

Ehorzketa eskubidea emateko eta hobeto identifikatzeko, kolunbarioak eta hilobiak erregistro liburuan adieraziko dira.

20. artikulua. Hileta eskubideak iraungitzea

Honako kasu hauetan ehorzketa eskubidea iraungitzat joko da, eta Labrazako Kontzejuaren eskuetara bihurtuko da:

1. Kolunbarioak zaindu ez eta utzita badaude eta konpontzeko edo egokitzeko emandako epeak ez direla bete egiaztatukoan.
2. Ehorzketa eskubidea ordenantza honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen bada.
3. Edonola ere, legeak eta ordenantza honek finkatzen duten aldi baterako emakida epea igarotzen denean.
4. Interesdunari tasak ordaintzeko eskatu ondoren, dagozkionak ordaintzen ez baditu.
5. Ehorzketa eskubidea ordenantza honetan onartzen ez den beste norbaiti eskualdatzen bazaio.
6. Titularrak berariaz uko egiten badio.

Ehorztekoko eskubidearen epea amaitu dela adierazteak ezarritako emakida iraungitzea ekarriko du, eta ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

21. artikulua. Tasak

Tasa horiek ezartzea, eguneratzea edo bestelako aldaketak ordenantzaz apartekoak izango dira, hau da, ez diete gainerako artikuluei eragingo.

Xedapen gehigarria

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztirako, honakoak beteko dira: uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretua, hilotzen osasun zaintzaren arautegia onartzen duena; ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko antolamendu sanitarioarena; urriaren 19ko 202/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko arautegia onartzen duena; eta indarrean dauden gainerako arauak. Labrazako Administrazio Batzarrak interpretatuko du ordenantza hau, beharrezkoa den kasuetan. Erabakiaren garrantziagatik, zailtasunagatik edo adostasun ezagatik egokitzen jotzen denean, erabakia kontzejuak hartuko du.

Azken xedapena

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta 65.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jarriko da indarrean.